




GrAL ARAUDIA

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

PSIKOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE PSICOLOGÍA

PSIKOLOGIAKO GRADU AMAIERAKO LANA EGIN ETA DEFENDATZEKO ARAUTEGIA (UPV/EHU)

1.- SARRERA

Urriaren 29ko 1393/2007 errege dekretuak, III. kapituluan, graduako ikasketa ofizialei buruzkoan, xedatzen du ikasketa horiek amaitzeko gradu amaierako lan bat egin beharko dela eta lan hori "tituluari lotutako gaitasunen ebaluazioa egitera bideratuta" egongo dela.

2012ko maiatzaren 16an UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean Gradu Amaierako Lana Egin eta Defendatzeari buruzko Arautegia onartu zuen, eta 2012ko ekainaren 19ko EHAAn argitaratu zen. Arautegi horretan, ikastegiei garatu beharko dituzten eta fakultateko edo eskolako batzarrek onartu beharko dituzten jarraibide orokorrak ezarri ziren. 2015eko martxoaren 12an, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari buruzko arautegi berria onartu zuen, aurreko arautegia aldatzen zuena.

UPV/EHUko Psikologiako Graduako Titulua Egiaztatzeko Memorian adierazita dagoen bezala, "Gradu Amaierako Lana ikasleak nahitaez egin beharrekoa da: 6 kreditu ditu eta ikasturtearen bigarren lauhilekoan egin behar da. Lanaren helburua da ikasketetan lortutako gaitasunak erakustea. Dokumentu idatzia da, baina ahoz azaldu beharko da epaimahaiaren aurrean eta hark zehaztuko du kalifikazioa."

Gradu Amaierako Lanak (GrAL) 6 ECTS kredituko balioa du; hau da, 150 ordu, era honetan banatuta:

- Jarduera gainbegiratua: $\% 6 = 8,5$ ordu; 6 ordu, gainbegiratze lanetarako, eta 2,5 ordu, tutoretza programatuetarako.
- Jarduera autonomoa: $\%93 = 140$ ordu.
- Ebaluazioa: $\%1 = 1,5$ ordu.

2.- GrALeKo GAITASUNAK

- Psikologiaren eredu teorikoak ezagutzea hautatutako gaian, eta haren ekarpenak eta mugak kritikoki balioesteko gai izatea.
- Gizakiaren substratu psikologikoa osatzen duten elementuak identifikatzeko eta sartzeko gai izatea.
- Ebaluazioa egiteko datu garrantzitsuak neurtzeko eta lortzeko gai izatea, datu kuantitatiboak edo/eta kualitatiboak aztertzeko gai izatea, eta landutako gaiaren emaitzak interpretatzeko eta txosten tekniko bat ahoz edo/eta idatziz aurkezteko gai izatea.
- Ikergaiaren testuinguruan agertzen diren banakako, taldeko eta taldeen arteko aldeak, arazoak eta beharrak identifikatzeko gai izatea.
- Landutako gaiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, hautatzeko, aztertzeko eta laburtzeko gai izatea, espezializatutako informazio- eta dokumentazio-iturrietatik abiatuta.

GrALean ebaluatzen diren zeharkako gaitasunak

- Psikologiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, hautatzeko, aztertzeko eta laburtzeko gai izatea, espezializatutako informazio- eta dokumentazio-iturrietatik abiatuta.
- Maila pertsonalean, profesionalean eta zientifikoan modu eraginkorrean erlazionatzea eta komunikatzea, eta banaka nahiz diziplina bakarreko zein anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea, ardurak hartuz eta jarduerak modu kritikoa baloratuz.
- Psikologoaren jarduera profesionala arautzen duen lege-esparrua ezagutzea eta printzipio etikoak eta deontologia-kodea aplikatzeko gai izatea.

- Modu autonomoan ikasi eta etengabeko ikaskuntzaren garrantzia baloratu, lanbidearekin erlazionaturiko gaitasunak eta ezagutzak eguneratu eta ezagutza psikologikoari ekarpenak egiteko gai izatea.

3.- GrAL MOTAK ETA GAIEN ESKAINTZA

- Gradu Amaierako Lanaren bi modalitate daude:
 - 1) Practicumari lotutako lan bat, Practicumean burututako jardueren oinarri teoriko eta metodologikoak aurkezteko helburuarekin, erabilitako tekniken jatorri eta oinarrien aurkezpena egiteko, eta Practicumean burututako lanaren inguruan egin daitezkeen hobekuntzen eta interesgarriak izan daitezkeen beste alderdi batzuen balorazio kritikoa egiteko.
 - 2) Irakasleek eskainitako gai-aukeren zerrenda batean oinarrituta egindako lana, burututako Practicumarekin loturarik ez duena. Hainbat planteamendu aurkeztu ahal izango dira, hala nola ikerketa-proposamenak edo hainbat gaitan sakontzeko proposamenak (adibidez, gaiaren egoeraren azterketa, errebisio narratiboak, sistematikoak edo irismenekoak).

Sail bakoitzak gai-zerrenda bana aurkeztuko dio GrALaren Batzordeari, aurreko ikasturtea amaitu baino lehen, ikasleek eskura izan dezaten beharrezkoa den aurrerapenarekin. Sailek bermatu egin beharko dute eskaintza hiru hizkuntzatan (euskara, gaztelera eta ingelera) egiten dela.

4.- ESKAKIZUNA ETA MATRIKULA

Eskakizuna:

A aukera: tutore bat zuzenean esleitzea; horretarako, dagokion eskakizuna, irakasleak sinatuta, aurkeztu beharko du idazkaritzan urrian.

B aukera: web orrian argitaratutako GrAL eskaintzaren artetik tutorea aukeratzea. Eskaera hori GAUR aplikazioaren bidez egingo da azaroan. Eskabide honen ondoriozko behin-behineko esleipena abenduan jakingo da. Ikasleek tutore-aldaketa eskatu ahal izango dute eta A aukerari jarraitu.

Bi aukera horietarako, beharrezkoa da 1., 2. eta 3. mailai dagozkien 18 kreditu baino gehiago gainditu gabe ez izatea.

Bigarren lauhilekoa hasi aurretik, GFaren tutoretza guztiak behin betiko esleituko dira.

Matrikula: Ikasleek GrAL matrikulatu eta defendatu ahal izateko, graduari dagozkion nahitaezko praktikak eta, gehien dela, beste irakasgaietako 12 kreditu baino ezingo dituzte izan gainditzeke.

GrALeko matrikula GAUR aplikazioaren bidez egin dezake ikasleak, ezarritako baldintzak betetzen dituenean.

Behin matrikula eginda, ikasleek adierazi beharko dute zer deialditan eta hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez) defendatu nahi duten lana.

Prozesua

1. Ikasleak tutore bat aukeratzea (A aukera) edo aurretiko izen-ematea egitea akademi-espeditentean duen notaren arabera tutore bat esleitua izateko (B aukera).
2. GrAL Batzordeak tutorea esleitzea.
3. Ikasleak tutorea aldatzeko eska diezaioke GrAL Batzordeari.
4. Batzordeak ikaslearen eskaria ebatzea.
5. Tutorea behin betiko esleitzea.
6. Ikaslea tutorearekin harremanetan jartzea, prozesua abiatzeko.

7. Ikasleak, lana egin ondoren, GrALaren matrikula egingo du GAUR aplikazioan, betiere nahitaezko praktikak eta, gehien dela, beste irakasgaietako 12 kreditu baino ez baditu gainditzeke.
8. Ikasleak, aurreikusitako dataren batean, GrALa defendatzeko eskaria egitea GAUR aplikazioan, zein hizkuntzatan egin nahi duen (eusakara, gaztelera edo ingelera) zehaztuz.
9. Tutoreak GrALa ebaluatzea, eta oniritzia ematea defentsa-eskariari GAUREn.
10. Ikasleak bere GrAL EHUren erakunde gordailura (ADDI) igotzea.
11. Tutoreak oniritzia ematea GrALari ADDIn.
12. Ikasleak GrALa epaimahai baten aurreran aurkeztea eta defendatzea, eta dagokion ebaluazioa egitea.

5.- TUTORETZA

Sail bakoitzak GrALeko tutoretza egingo duten irakasleen zerrenda bana egingo du, ikasleagoak aukeratu ditzakeen hizkuntzak kontutan hartuz. Gure irakasle eta ikerlariek GrALak tutorizatzeko ardura daukate, Graduako irakasgai bat gehiago delarik, nahiz eta Fakultateko irakasle guztiek partekatutakoa izateko berezitasuna izan. Zerrenda honek ikasturte bakoitzean Psikologiako Graduan irakaskuntza ematen duten irakasle guztiak barne hartuko ditu.

Sailen proposamenak irakasle bakoitzarentzat gai bat edo gehiago eduki ditzake, edo dagokion jakintza alorraren izena duen eskaintza orokorra. Era berean, gaia eta hizkuntza bakoitzeko eskaintzen diren plaza kopurua barne hartu beharko ditu. Beti ere, irakasle bakoitzeko gutxienez 3 GrAL plaza eskaini behar dira, eta gehienez 5 GrAL plaza esleitzea komeni da. Sailaren ardura izango da irakasleek ikasturte osoan eskaintako GrAL kopurua bermatzea, gerta daitezkeen bajak, erretiroak eta abar gorabehera.

Pertsona bakarreko kudeaketa-karguak dituzten eta irakaskuntzatik %50eko edo gehiagoko salbuespena duten langileei esleituko zaien GrAL plaza kopurua bere kontratuaren irakaskuntza-murrizketaren proportzioan egongo da (adibidez, murrizketa % 50ekoa bada, GrAL 1 eskainiko du).

Irakasle atxikien eskaintza bere kontratuaren arabera izango da (adibidez, kontratua 12 kreditukoa bada, GrAL 1 eskainiko du).

Psikologiako Graduan irakaskuntza duen sail bati atxikita dagoen irakasle orok (beste titulazio batean GrALak eskaintzen eta/edo zuzentzen dituen alde batera utzita) 3 GrAL plaza eskainiko ditu.

GrAL plazak eskaini ahal izango dituzte Psikologiako Graduan irakasten duten sailei atxikitako doktoreak ez diren pertsonak.

Irakasleen zerrenda GrALaren Batzordearen esku jarri beharko da aurreko ikasturtea amaitu baino lehen. Batzordeak tutoreak izendatu ahalko ditu, ikasleek aurrematrikula egin ondoren. Sailek eskaintza ikasturte osoan mantentzea bermatuko dute (bajak, jubilazioak,...gertatzen direla ere).

Tutorearen eginkizunak:

Gure Fakultateko irakasle eta ikerlariak Psikologiaren arloko *edozein* GrAL zuzendu eta ebaluatzeko gai dira, eta ez bakarrik irakaslearen jakintza edo ikerketa arlokoak. Esleipena egiterakoan ez da kontutan hartuko ikasleak tutorea aukeratu duen edota zein lehentasun ordenetan aukeratu duen. Gogoan izan behar da GrALean titulazioko gaitasun *orokorrak* lantzen direla eta irakasle guztiek gaitasun horiek tutorizatu eta ebaluatu ditzaketela.

Tutorearen eginkizunak ondorengoak dira:

1. Ikasleari laguntzea GrALaren mugak ezartzen, helburu errealistak ezartzen eta prozesua abiatzen.
2. Ikasleari laguntzea egutegi bat eta lan-erritmoa ezartzen.
3. Ikaslea ezarritako helburuak betetzen ari ote den gainbegiratzea.

4. Ikaslearen esku jartzea GrALeko gaitasunak garatzeko behar diren baliabideak.

5. Lanaren gaineko atzera elikadura egitea, etengabe.

6. Ikasleak GrALarekin lotutako gaitasunak eskuratzen dituela ebaluatzea, errubrika bidez.

7. Txosten bat idaztea, ikasleak GrALa defendatu aurretik eta oniritzia ematea defentsari GAUREn eta dokumentazioari ADDIn.

Prozesua:

Ikasleak GrALeko tutorea esleitua duenean, tutoretza prozesua hasiko da. Ikaslea tutorearekin harremanetan jarri beharko da, GrALeko proiektua aurkeztu beharko dio, eta lan egutegi bat hitzartu eta aurrez aurreko tutoretza saioen kronograma ezarri beharko dituzte elkarrekin.

Prozesuaren nondik norakoak irakasleak eta ikasleak hitzartu beharko dituzte. Hala ere, prozesuan zehar, gutxienez lehenengo tutoretza saio bat egin beharko da, lanaren helburuak eta prozesua bera adosteko eta hasierako zalantzak argitzeko; jarraipenerako saio bat, hau da, helburuak zelako erritmoan betetzen ari diren ikusteko eta arazoak konpontzen laguntzeko; eta azken saioa, lana gainbegiratu eta lana defendatzeko eskaria noiz egingo den adosteko.

6.- AURKEZPENA ETA DEFENTSA

GrALa amaituta, ikasleak alde batetik lana ikastegiak aurreikusitako egunetako batean defendatzeko eskaria egin beharko du GAUR aplikazioaren bidez.

Bestetik, ikasleak GrALaren ale bat eta defentsa egiteko erabiliko duen posterra ADDIra igoko ditu (bi dokumentu, PDF formatuan). Hau guztia telematikoki egingo da, paperezko alerik aurkeztu gabe.

Ikasleak aurkeztuko duen lan idatziak azken notaren % 60ko balioa izango du, eta ahozko aurkezpenak eta defentsak, berriz, % 40ko balioa.

Ikasleak GrALa idatziz aurkeztu eta ahoz defendatu beharko du, horretarako izendatutako hiru irakaslek osatutako epaimahaiaren aurrean. Epaimahai hori GrAL Batzordeak izendatuko du eta bertan ez da ikaslearen tutorea egongo.

GrALa euskaraz, gazteleraz edo ingelesez defendatzeko aukera izango du ikasleak.

Deialdiak:

GrALeko matrikula egiten duten ikasleek bi deialdi ofizial izango dituzte ikasturte bakoitzean GrALa aurkezteko eta defendatzeko. Ikasleak lana aurkezten ez badu edo ebaluatzen ez bazaio ikasturteko bi deialdi horietako batean, GrALa berriro aurre-matrikulatu eta matrikulatu beharko du hurrengo ikasturtean.

GrALa defendatzeko epeak:

Hiru aukera emango dira GrALa defendatzeko, eta ikasleek horien artean aukeratu beharko dituzte matrikula bakoitzeko dituzten bi deialdiak. GrALa defendatzeko egunak epe hauen baitan aukeratu beharko dira:

1. Otsailan-martxoan zehar.
2. Ekaineko bigarren hamabostaldian zehar.
3. Urrian zehar.

GrALa aurkezteko eta defendatzeko formatua:

GrALa poster digital formatuan aurkeztu beharko da (ikusi "Posterrak eta Defentsa egiteko argibideak" dokumentua).

Poster hortan GrALaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azalduko dira. Posterrak formatu digitalean aurkeztuak izango dira, proiektzioaren bidez, epaimahaiak berrikus ditzan.

Ikasle bakoitzak bere posterraren aurkezpen labur bat egin beharko du, 5 bat minutukoa, eta epaimahaiak, egokitzat jotzen badu, egindako lanari buruzko galderak, azalpenak, iruzkinak eta iradokizunak egingo ditu.

7.- EBALUAZIOA, KALIFIKAZIOA ETA ERREKLAMAZIOAK

Lanaren tutorea:

GRALaren tutoreak lana ebaluatzeko diseinatutako txosten baten bidez egingo du ebaluazioa eta GAUR plataformara igoko du. Tutoreek erabiliko duten ebaluazio txostenak bi zati ditu: bata, gaitasunak ebaluatu eta lanari eta lanaren prozesuari nota jartzekoa; eta, bestea, ikaslearentzat edo ebaluazio epaimahaiarentzat garrantzitsuak izan daitezkeen komentarioak egitekoa. Lanaren ebaluazioan, tutorearen notaren balioa azken notaren % 30 izango da.

Ebaluazio epaimahaia:

Sail bakoitzak gutxienez epaimahai bana izendatuko du GrALa egiteko erabili daitekeen hizkuntza bakoitzeko, eta epaimahai bakoitzak hiru irakasle izango ditu. Epaimahai bakoitzean epaimahaiburua eta idazkaria izendatuko dira, irakasleen kategoria eta antzintasunaren ohiko irizpideei jarraiki.

Sail bakoitzak bere eskaintzan proposatutako GrAL kopurua ebaluatzeko beharrezkoak diren epaimahai guztiak izendatu beharko ditu.

Ebaluazio epaimahaiaren eginkizunak:

1. Aurkezturiko lanak eta GrALaren aurkezpena eta defentsa aztertzea.

2. Ikasleak aurkezturiko lanaren arabera, GrALarekin lotutako gaitasunak eskuratu ote dituen baloratzea.
3. Atzera elikadura egitea, gaitasunak hobetzeko.
4. Lanaren balorazioa egitea, errubriken eta azken puntuazioaren bidez.
5. Kalifikazioen berri GAUREn jasotzea.

Ebaluazioa:

Ikasleak bere azalpenak eman ondoren, eta tutorearen ebaluazioa zein izan den jakin ostean, epaimahaiak dagokion nota jarriko du, GrALaren irakaskuntza-gidaliburuan argitaratutako ebaluazio-irizpideen arabera.

GrALaren azken nota honela banatuko da:

- Aurkeztutako idatzizko lana: notaren % 60
 - Tutorearen nota: % 30
 - Epaimahaiaren nota: % 30
- Posterra, aurkezpena eta defentsa: notaren % 40

Tituluko gainerako irakasgaietan bezalaxe, GrALeko kalifikazioak honako hauek izango dira: gutxiegi (0-4,9), nahikoa (5-6,9), oso ongi (7-8,9) eta bikain (9-10).

GrALeko Batzordeak ohorezko matrikula eman ahal izango die 9ko kalifikazioa edo handiagoa lortu duten ikasleei, epaimahaiak hala proposatu ondoren.

Ikasleak gutxiegi aterako balu, epaimahaiak lana hobetzeko gomendioak biltzen dituen txostena helaraziko dio ikasleari, lana hobetu eta ebaluazioa berriro egiteko aukera izan dezan. Tutoreari txosten horren kopia bat bidaliko zaio.

Ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du, eta ikaslea erabakiarekin ados ez badago, dagokion batzordeak egingo du kalifikazioaren berrikuspena.

8.- GrALik ONENARI SARIA

10eko kalifikazioa lortu duten GrALek promozioko GrALik onenaren saria lortu ahal izango dute. Sari hori emateko, epaimahai bat eratuko da ikasturte bakoitzean. Epaimahaikide hauek Sailek proposatuko dituzte.

Epaimahaian jakintza arlo bakoitzeko irakasle bat egongo da, ikasturte horretan epaimahaiburu izandakoa eta GrALa aurkeztu daitekeen hizkuntzetan irakurri eta ulertzeko gaitasuna duena.

Epaimahai honek eskura izango ditu saria lor dezaketen ikasleen lanak eta posterrak, baita tutoreek eta epaimahaiek egindako ebaluazioak.

Epaimahaiaren erabakia epaimahaikide guztiek sinatu beharko duten akta batean jasoko da eta akta hori GrAL Batzordearen arduradunari helaraziko zaio.

Sariari buruzko erabakia promozioko diplomak emateko ekitaldian iragarriko da.

10eko kalifikazioa jaso duten eta, beraz, GrALik onenaren sarirako hautagai izan diren GrAL guztiak, EHUko erakunde gordailu (ADDI) jendaurrekoan argitaratuko dira.

9.- PROZESUAREN KOORDINAZIOA

GrALeko Batzordea ondorengo pertsonekin osatuko da: Ikasleen Dekanordea, Gradu koordinatorra, ikastegiko teknikaria, idazkaritzako pertsona bat, sail bakoitzeko irakasle bat eta ikasleen ordezkari bat.

Prozesuaren funtzionamendua eta gainbegiraketa bermatzeko, batzorde honek ondorengo funtzioak izango ditu:

1. Ikasturte bakoitzean egindako GrALen kudeaketa aztertzea.
2. GrALarekin zerikusia duten taldeen gogobetetzea ebaluatzea.
3. Prozesuarentzako hobekuntzak proposatzea.